



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2019.02.18

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Beloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar

Jarduneko Idazkaria:
Karmele Contreras Goikoetxea

Kontuhartzailea :
Ainhoa Molinos Zubiaurre

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko otsailaren hemezortzian, 08:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Baliozkotzat jotzea Tolosako lurramendi pasealekuan dauden bi haur parkeen mantentze-lana egiteko materialen hornidura kontratuaren lizitazio-egintza eta kontratua esleitzea.
2. Baliozkotzat jotzea Tolosako udalerrian Gizarte eta Hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu kontratuaren lizitazio egintza eta kontratua esleitzea.
3. Tolosako Udala atxikitzea gas naturala Gipuzkoako Kontratazio Zentralaren bitartez hornitzeko kontratuari.
4. 2019ko Iñauterien egitaraua eta aurrekontua.
5. 84/2018, 2/2019 eta 3/2019 faktura-zerrendak.

1. BALIOZKOTZAT JOTZEA TOLOSAKO IURRAMENDI PASEALEKUAN DAUDEN BI HAUR PARKEEN MANTENTZE-LANA EGITEKO MATERIALEN HORNIDURA KONTRATUAREN LIZITAZIO-EGINTZA ETA KONTRATUA ESLEITZEA.

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea:	Tolosako lurramendi pasealekuan dauden bi haur parkeen mantentze-lana egiteko materialen hornidura kontratatzea
Unitate sustatzailea:	Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak



Espedientea:	2018HASI0001
--------------	--------------

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non udal idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

2.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko udal ingeniari teknikoak eta Hirigintza Departamentuko buruak, 2018ko azaroaren 28an egindako txostenaren bitartez, hasiera eman zioten aipatutako xedea duen kontratazio jardunbideari. Bertan, honako hauek eskatzen ziren jardunbidea burutu ahal izateko: administrazio klausula partikularren plegua, baldintza teknikoen plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria eta Idazkaritzaren eta Kontuhartzaitzaren txostenak.

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), bere IV. Kapituluaren (298. artikulutik aurrera), hornidura kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, alokairua, egikaritzea, prezioaren ordainketa eta kontratua etetea beste batzuen artean.

Hirugarrena.- Aipatutako txostenean, administrazio baldintza partikularren plegua osatzeko oinarrizko datuen inguruan egindako txostenean, kontratuaren xehetasunak aipatu zituen: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, bermealdia eta esleipen irizpideak.

Laugarrena.- Espedientea eta klausula administratibo partikularren zein baldintza teknikoen pleguak 2018ko abenduaren 10ean onartu zituen Tokiko Gobernu Batzarrak. Egun berean, lizitazioaren deialdia Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratatailearen Profileen argitaratu zen.

Administrazio baldintzen pleguan xedatutakoarekin bat etorrira, CPV: 37535200-9 kodearekin tipifikatuta dagoen kontratu honek honako aurrekari hauek ditu:

- prozedura: ireki sinplifikatua
- tramitazioa: arrunta
- loteak: loterik gabe

Bosgarrena.- Behin eskaintzak aurkezteko epea amaituta, ondorengo enpresak izan ziren proposamenak aurkeztu zituztenak:

- SUMALIM,S.L. (B-31270473).
- MONTAJES GARRA, S.L. (B-20700464).
- URBABIL 2000, S.L. (B-95110342).



- BRICANTEL ESPAÑA, S.L. (B-49280720).

Seigarrena.- 2019ko urtarrilaren 7an, Kontratazio-Mahaiak A+B gutun-azala ireki zuen. Aipatutako enpresek ABPParekin bat etorri aurkeztu zuten dokumentazioa, baina SUMALIM,S.L. eta MONTAJES GARRA, S.L. enpresek aurkeztutako proposamenetan akatsak antzeman ziren. Aurreko guztia aintzat harturik, enpresa guztiei errekeritu zitzairen dokumentazio zuzena aurkez zezaten, luza ezin zitekeen 3 eguneko epean, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita

Zazpigarrena.- 2019ko urtarrilaren 28an, Kontratazio-Mahaiak C Gutun-azala ireki zuen eta aho batez onartu kontratazio-teknikariak urtarrilaren 11n egindako txostena, non ziurtatzen zuen SUMALIM, S.L. eta MONTAJES GARRA, S.L. enpresek aipatutako epearen barruan zuzendu zituztela akatsak, errekeritu zitzairen bezala; bestalde, aho batez onartu zuen udal ingeniariak zifra edo ehunekotan baloratu ezin daitezkeen irizpideei buruz egindako balorazio-txostena.

Udal ingeniariak egindako balorazioan Montajes Garra, S.L. eta Bricantel España, S.L. enpresek ez zuten betetzen Administrazio Baldintza Partikularren Pleguko I. Eranskinaren 18. idatz-zatian xedatutakoa, non esaten den lizitaziotik kanpo geratuko direla zati honetan 10 puntu baino gehiago lortzen ez dituzten eskaintzak.

Azkenik, URBABIL 2000, S.L. enpresak egikaritze denbora 60 egunekoa izango zela aurkeztu zuen eta ABPPean aipatzen da gehieneko epea 30 egunekoa izango dela. Epe hori betetzea derrigorrezkoa denez eta gehieneko epea betetzen ez denez, Kontratazio Mahaiak enpresa lizitaziotik at uztea erabaki zuen.

Aurreko guztia aintzat harturik, Kontratazio-Organoari erreferentziako kontratua SUMALIM, S.L. (B-31270473) enpresari esleitzea proposatu zion, zenbateko honekin: berrogeita hiru mila bostehun eta laurogei euro eta hogeita bost zentimo (43.580,25 €) —nagusia—, gehi % 21eko BEZa, zeina baita bederatzita mila ehun eta berrogeita hamaika euro eta laurogeita bost zentimo (9.151,85 €); beraz, guztira, berrogeita hamabi mila zazpiehun eta hogeita hamabi euro eta hamar zentimo (52.732,10 €). Halaber, SPKLren 150. artikuluan xedatutakoaren arabera, beharrezko dokumentazioa aurkeztu zezan errekeritu zion.

Bederatzigarrena.- Behin errekeritutako dokumentazioa jaso eta aztertu ondoren, kontratazio-teknikariak txostena egin zuen 2019ko otsailaren 12an, eta bertan zioen dokumentazioa egokia zela eta kontratua aipatutako enpresari esleitzea proposatzen zuen.

Hamargarrena.- 2019ko otsailaren 13an Kontratazio-Mahaia bildu eta aipatutako txostena aho batez onartuta, Kontratazio-Organoari proposatu zion erreferentziako kontratua SUMALIM,S.L. (B-31270473) enpresari esleitzea.



TOLOSAKO
UDALA

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Baliozkotzat jotzea Tolosako lurramendi pasealekuan dauden bi haur parkeen mantentze-lana egiteko materialen hornidura kontratuaren lizitazio egintza eta erreferentziako kontratua SUMALIM,S.L. (B-31270473) enpresari esleitzea honako ezaugarri nagusi hauekin:

- Prezioa: Berrogeita hiru mila bostehun eta laurogei euro eta hogeita bost zentimo (43.580,25€) —nagusia—, gehi % 21 —BEZa—, zeina baita bederatzi mila ehun eta berrogeita hamaika euro eta larogeita bost zentimo (9.151,85€); beraz, guztira, berrogeita hamabi mila zazpiehun eta hogeita hamabi euro eta hamar zentimo (52.732,10 €).
- Egikaritze epea: 30 egun kontratua sinatzen denetik
- Bermealdia: 6 urte.
- Lurreko materialen ziurtagiria: NF EN 71-3, PAH.
- Kaltetutako elementuak ordezkatzeko segurtasuna eta konpromisoa: 5 urte.
- Konponketak eta erreposizioak egiteko epea: 4 egun.

BIGARRENA.- Esleipena jakinaraztea enpresa lizitatzaille guztiei.

HIRUGARRENA.- Ebazpena argitaratzea Euskadiko Kontratatzaillearen Profilean.

LAUGARRENA.- Kontratua formalizatzea 15 laneguneko gehieneko epean, adjudikazio hau jakinarazi den egunetik hasita.

BOSGARRENA.- Erabakia jakinaraztea Hirigintza Departamentuari, Kontuhartzaitzari eta Kontratazio Atalari.



2. BALIOZKOTZAT JOTZEA TOLOSAKO UDALERRIAN GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOSIALEAN ESKU-HARTZEKO ZERBITZU KONTRATUAREN LIZITAZIO EGINTZA ETA KONTRATUA ESLEITZEA.

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

kontratuaren xedea:	Tolosako udalerrian gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua
Unitate sustatzailea:	Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna
Espedientea:	2018SABI0004

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non udal idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

2.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko alkate-udalburuak 2018ko irailaren 4an egindako probidentziaren bitartez, aipatutako xedea duen kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, honako hauek eskatzen ziren jardunbidea burutu ahal izateko: administrazio klausula partikularren plegua, baldintza teknikoan plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria eta Idazkaritzaren eta Kontuhartzaitzaren txostenak.

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), bere V. Kapituluaren (308. artikulutik aurrera), Zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna beste batzuen artean.

Hirugarrena.- 2018ko urriaren 10ean, Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren departamentuburuak egindako txostenean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak beste batzuen artean.

Laugarrena.- Espedientea eta administrazio klausula partikularren zein baldintza teknikoan pleguak 2018ko abenduaren 3an onartu zituen Tokiko Gobernu Batzarrak; egun berean argitaratu zen lizitazioaren deialdia Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratatzaileraren Profilean.

Administrazio baldintzen pleguan xedatutakoarekin bat etorrira, CPV: 5300000-2 kodeekin tipifikatuta dagoen kontratu honek honako aurrekari hauek ditu:

- prozedura: irekia.
- tramitazioa: arrunta.



- loteak: loterik gabe.

Bosgarrena.- Behin eskaintzak aurkezteko epea amaituta, NURA GIZARTE ELKARTEA (G-20779187) enpresak bakarrik aurkeztu zuen proposamena.

Seigarrena.- 2019ko urtarrilaren 7an, Kontratazio-Mahaiak A gutun-azala ireki zuen. Aipatutako enpresak, ABPParekin bat etorri aurkeztu zuen dokumentazioa, baina kaudimen tekniko edo profesionala ez zuen ondo egiaztatu; hori aintzat harturik, enpresari errekeritu zitzaien dokumentazioa zuzen zezala, luza ezin zitekeen 3 eguneko epean, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Zazpigarrena.- 2019ko urtarrilaren 14an, Kontratazio-Mahaiak B gutun-azala ireki zuen eta aho batez onartu kontratazio-teknikariak urtarrilaren 9an egindako txostena, non ziurtatzen zuen NURA GIZARTE ELKARTEA enpresak aipatutako epearen barruan zuzendu zituela akatsak, errekeritu zitzaion bezala.

Zortzigarrena.- 2019ko urtarrilaren 28an, Kontratazio-Mahaiak C gutun-azala ireki zuen eta Kontratazio-Organoari proposatu zion erreferentziako kontratua NURA GIZARTE ELKARTEA enpresari esleitzea, gastu iraunkorren kostua (pertsonal teknikoaren ordainsariak eta bulego gastuak) urte osoa kontuan hartuta, berrogei mila euro eta hogeita hamahiru zentimotan (40.033,00 €) BEZa salbuetsita, eta jarduera bakoitzeko ondorengo unitate-prezioen arabera:

Jarduera espezializatuak	Saioko prezioa €	BEZa
Banakako esku-hartze psikosoziala (50 min)	52	salbuetsita
Bikoteko-Familiako esku-hartze psikosoziala (60 min)	64	salbuetsita
Taldekako esku-hartze psikosoziala (90 min)	105	salbuetsita
Gizarte eta hezkuntza arloko lagun-egitea (60 min)	29	salbuetsita
Familiako gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea (60 min)	29	salbuetsita
Taldeko gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea (90 min)	47	salbuetsita
Ohikoak ez diren koordinazio saioak (Erreferentziako gizarte langileak baimendutakoak) (90 min)	30	salbuetsita

Halaber, SPKLren 150. artikuluan xedatutakoaren arabera, beharrezko dokumentazioa aurkeztu zezan errekeritu zion.

Bederatzigarrena.- Behin errekeritutako dokumentazioa jaso eta aztertu ondoren, kontratazio-teknikariak txostena egin zuen 2019ko urtarrilaren 29an, eta bertan zioen dio



dokumentazioa egokia zela eta kontratua aipatutako enpresari esleitzea proposatzen zuen.

Hamargarrena.- 2019ko urtarrilaren 30ean, Kontratazio-Mahaia bildu eta aipatutako txostena aho batez onartuta, Kontratazio-Organuari proposatu zion erreferentziako kontratua NURA GIZARTE ELKARTEA (G-20779187) enpresari esleitzea.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA Baliozkotzat jotzea Tolosako udalerrian gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu kontratuaren lizitazio egintza eta erreferentziako kontratua NURA GIZARTE ELKARTEA (G-20779187) enpresari esleitzea honako ezaugarri nagusi hauekin:

- Prezioa: Gastu iraunkorren kostua (pertsonal teknikoaren ordainsariak eta bulego gastuak) urte osoa kontutan hartuta, berrogei mila euro eta hogeita hamahiru zentimotan (40.033,00€) BEZ salbuetsita, eta jarduera bakoitzeko ondorengo unitate-prezioen arabera:

Jarduera espezializatuak	Saioko prezioa €	BEZa
Banakako esku-hartze psikosoziala (50min)	52	salbuetsita
Bikoteko-Familiako esku-hartze psikosoziala (60min)	64	salbuetsita
Taldeko esku-hartze psikosoziala (90min)	105	salbuetsita
Gizarte eta hezkuntza arloko lagun-egitea (60min)	29	salbuetsita
Familiako gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzea (60min)	29	salbuetsita
Taldeko gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzea (90min)	47	salbuetsita
Ohikoak ez diren koordinazio saioak (Erreferentziatzko gizarte langileak baimendutakoak) (90 min)	30	salbuetsita

Unitate kopurua kontratuko prezioaren % 10eraino areagotzeko aukera dago, SPKLren 309. artikuluan xedatutakoa jarraikiz eta kontratuko prezioaren ehuneko 10eko gastua gainditzen ez badu; beti ere, udal aurrekontuetan kreditu nahikoa eta egokia badago. Gehikuntza hau ez da kontratuaren aldaketatzat joko.



TOLOSAKO
UDALA

- Epea: bi urtekoa izango da kontratua sinatzen denetik. eta beste urtebete luzatzeko aukera aurreikusten da.

-Bermealdia: 6 hilabete.

BIGARRENA.- Esleipena jakinaraztea enpresa lizitatzaille guztiei.

HIRUGARRENA.- Ebazpena argitaratzea Euskadiko Kontratatzailearen Profilean.

LAUGARRENA.- Kontratua formalizatzea 15 laneguneko gehieneko epean, adjudikazio hau jakinarazi den egunetik hasita.

BOSGARRENA.- Erabakia jakinaraztea Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari, Kontu-hartzailetzari eta Kontratazio Atalari.

3. TOLOSAKO UDALA ATXIKITZEA GAS NATURALA GIPUZKOAKO KONTRATAZIO ZENTRALAREN BITARTEZ HORNITZEKO KONTRATUARI.

AURREKARIAK

Lehena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2011ko otsailaren 22ko bileran, 3/2011 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentrala eta Foru Aldundiko Zerbitzu Orokorren Kontratazio Mahaia arautzekoa, onartu zuen (martxoaren 4ko GAO, 43. zenbakia). Dekretu hori 2018ko ekainaren 19ko Foru Dekretuak aldatu zuen gero.

Foru Dekretu horren helburua zen denbora hartan indarrean zegoen Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateratuak jasotzen zuen aukera garatzea, hau da, sektore publikoko entitateek obra, zerbitzu eta horniduren kontratazioa zentralizatzeko aukera izatea, zerbitzu espezializatuen esku utzita, betiere, kontratu publikoen esleipena hobeto antolatu eta modu arrazionalagoan egite aldera.

Horretarako, Foru Kontratazioen Zentrala sortu zen, zeina izango baitzen organo bat lagunduko ziena toki entitateen eta horien menpeko entitateen nahiz Gipuzkoako foru sektore publikoa osatzen duten entitateen kontratazio-organoei, baldin eta beren atxikimendua ematen badute.

Foru Kontratazioen Zentralak bere gain hartutako kontratazio espedienteak esparru akordioaren bitartez izapidetuko dira. Beraz, kontratazioa arrazionalizatu eta hobetzeko, izapide horiek bi fasetan egingo dira. Lehenengo fasean, esparru akordioa burutzeko, enpresa bat hautatuko da eta produktu edo zerbitzuen eta prezioen zerrenda bat lortuko da.



TOLOSAKO
UDALA

Esparru akordioa egin eta formalizatu ondoren, bigarren fase batean, akordio horretan oinarritutako kontratuak esleitu dira.

Kontratazioari buruzko araudiak aurreikusten duen aukera ikusita, zeinak bidea zabaltzen baitie kontratazio zentralari beste kontratazio organoetarako kontratuak esleitzeko, atxikita dauden hainbat entitate publikoren eskariz; proposatu zen Foru Aldundiko organoek tokiko entitateei eskaintzen zieten laguntza eta lankidetzak juridikoaren eta teknikoaren barruan sartzeko bigarren fase horren izapidetzea ere. Hori dela eta, Gipuzkoako hainbat entitate publikok espediente jakin batzuei emandako berariazko atxikimenduetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldeko mandatu klausula bat erantsi zen, espedientetik eratorritako kontratua esleitzeko eta formalizatzeko.

Kontuan izan behar da, Foru Kontratazioen Zentrala laguntza organo gisa eratuta dagoela, ez kontratazio organo gisa, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuak 2. artikuluan xedatutakoaren arabera. Gainera, 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikulua honako hau xedatzen du berariaz: Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak bere gain hartzen dituen kontratazio espedienteak esparru akordioaren bidez tramitatuko dira, eta haietara atxikitako erakunde publiko bakoitzak egin beharko ditu akordioan oinarritutako kontratuen esleipena eta izenpetzea.

Kudeaketa mandatuaren bidez administrazioko organoen edo zuzenbide publikoko erakundeen eskumeneko jardura materialak, teknikoak eta zerbitzuzkoak administrazio bereko edo beste bateko organoen edo erakundeen eskuetan jar daitezke, baina kudeatzeko mandatua eman duen organoaren edo erakundearen ardura izango da mandatuan emandako jardura material zehatzari oinarria emango dien edo hura barne hartuko duten egintza edo erabaki juridiko guztiak hartzea, horrela xedatzen baitu 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide juridikoarenak, bere 11. artikuluan.

Horretaz gain, atxikitako entitateen eratorritako kontratua esleitzea eta formalizatzeko bezalako egintza juridikoak egiteko, Foru Aldundiari emandako mandatua nekez gauzatu daiteke gastua baimendu eta xedatzeko eskumenarekin eta ordainketa agintzeko eskumenarekin batera, hori Foru Kontratazioen Zentralak izapidetutako kontratazio espedienteetan parte hartu duen entitate bakoitzeko organo eskudunari baitagokio, 3/2011 Foru Dekretuaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena.- Tolosako Udal Batzarrak 2011ko apirilaren 19an hartutako erabakiaren ondorioz, Udal honek Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralari atxikitzeko hitzarmena onartu zuen eta, beraz, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralak ateratzen dituen lizitazioetan parte hartzeko eskubidea du.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak 2016. urteko uztailean, gas naturalaren esparru akordioa egiteko kontratazio jardunbidea martxan jarri zuen eta izapidetze guztia jarraitu ondoren, 2017ko martxoaren 3an zegoen esparru-akordioa sinatu zuen GAS NATURAL SERVICIOS SDG, S.A. enpresarekin, eta, horren ondorioz,



Tolosako Udalak zegokion kontratu eratorria izenpetu zuen aipatutako enpresarekin. Kontratu horren iraupena bi urtekoa zen eta luzatzeko aukera aurreikusten zen, urtez urte, beste bi urte gehiagoz. Beraz, kontratua 2019. urteko apirilean bukatzen da, eta enpresak jakinarazi du luzapena ez duela onartzen. Horren ondorioz, Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak martxan jarri du kontratazio jardunbide berria eta horretara atxikitzeko egiten da txosten hau.

Laugarrena.- 2018. urteko uztailean GAS NATURAL SERVICIOS SDG, S.A. enpresak izen soziala aldatu eta NATURGY IBERIA, S.A. izena izatera pasatu zen.

Bosgarrena.- Jarraian, azken hiru urte honetan gas naturalean gastatutako zenbatekoak azaltzen dira:

enpresa	2016	2017	2018
ENDESA	89.393,57 €	55.950,16 €	11.951,87 €
GAS NATURAL		28.252,31 €	97.794,45 €
Guztira	89.393,57 €	84.202,47 €	109.746,32 €

ENDESA enpresak 2017. urtera arte eduki du gastua, 2017an aipatu bezala, GAS NATURAL enpresak irabazi baitzuen esleipena eta 2018ko gastua atzeratutako fakturena da. Horregatik 2017. urtean bi enpresek dute fakturazioa, urte horretako maiatzean hasi baitzen GAS NATURAL enpresa zerbitzua ematen.

Beraz, aurreko datuak aintzat harturik, urtean batez besteko 95.000 euroko gastua dago (BEZa barne) gas naturalaren hornikuntzan, baina kontuan izan behar da 2018. urtean % 30 igo dela gastu hori 2017. urtearekin alderatuta. Igoera hori ulertzeko, kontuan izan behar da ENDESA enpresak 2018. urtean fakturatutakoa 2014, 2015, 2016 eta 2017 urteetako faktura atzeratuak direla, beraz, 2018. urteko gastu erreala 100.000 eurora ez litzateke iritsiko.

Horregatik guztiagatik, urtero 100.000 euroko gastua egongo dela aurreikusi daiteke, beti ere kontuan izanik gasaren prezioak jasaten dituen gorabeherak.

ARAUDI APLIKAGARRIA

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bere 21. artikuluan xedatzen ditu zeintzuk diren alkatearen eskumenak eta horien artean ñ) zatian hau aipatzen du: “*Era guztietako kontratuak eta emakidak, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arruntan 100eko 10a gainditzen ez badu, eta inolaz ere sei milioi euroko kopurua gainditzen ez badu; horien artean sartzen dira, halaber, urte anitzekoak*





TOLOSAKO
UDALA

ere, epea lau urtetik gorakoa ez denean, baldin eta urtealdi guztietako zenbateko metatuarekin lehen esandako ehunekoa gainditzen ez bada, lehenengo ekitaldiko aurrekontuko baliabide arruntak erreferentziatzat hartuta, eta aipatutako zenbatekoa ere gainditzen ez bada.”

40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide juridikoarenak, bere 11. artikuluan kudeaketa-gomendioak definitzen ditu eta argi uzten du bere 2. zatian kudeaketa-gomendioak ez dakarrela ez eskumenaren titulartasuna ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea; horrelakoetan, kudeatzeko gomendia ematen duen organoaren edo entitatearen ardura izango da gomendioan emandako jardura material zehatzari oinarria emango dioten edo hura barne hartuko duten egintza edo erabaki juridiko guztiak hartzea.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak, bere 228. artikuluan, autonomia-erkidegoei eta toki-erakundeei kontratazio-zentralak sortzeko eta hauetara atxikitze eskumena ematen die.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2011ko otsailaren 22ko bileran, 3/2011 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentrala eta Foru Aldundiko Zerbitzu Orokorren Kontratazio Mahaia arautzekoa, onartu zuen (martxoaren 4ko GAO, 43. zenbakia) eta Tolosako Udalak 2011ko apirilaren 19ko Osoko Bilkuran Gipuzkoako Foru Aldundiko kontratazio zentralari atxikitzeko hitzarmena onartu zuen.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea gas naturala hornitzeko esparru akordioko kontratazio espedienteari atxikitze prozedura, Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak ireki duena, 2011ko apirilaren 19ko Udal Batzarrak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2018ko ekainaren 19ko Foru Dekretuak aldatutako 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.

BIGARRENA.- Konpromisoa hartzea esleipendun enpresarekin kontratu eratorria sinatzeko, Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

HIRUGARRENA.- Baimena ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari, Tolosako Udalaren gas naturalaren kontsumo datuak enpresa hornitzaileari eskatu eta horiek eskuratzeko, kontratazio espedientea arautuko duten baldintza agerietan jaso ahal izateko.



LAUGARRENA.- Baimena ematea alkateari udal honi dagokion kontratu eratorria esleitzeko eta formalizatzeko, beti ere aurretik kontuhartzailearen aldeko txostena badu.

BOSGARRENA.- Erabakia jakinaraztea Hirigintza Departamentuari, Kontuhartzaitzari eta Kontratazio Atalari.

4. 2019KO INAUTERIEN EGITARUAU ETA AURREKONTUA.

Kultura, Festak eta Gaztedia Departamentuak azken hilabeteotan landu ditu Tolosan ospatuko diren Inauterien egitarau ofiziala eta horrek Udalaren aurrekontuan izango duen eragina. Inauteriak 2019ko otsailaren 23an hasiko dira eta martxoaren 10ean bukatu.

Herriko eragile ugariarekin eta udal barruko zerbitzuekin guztia koordinatu eta adostu ondoren, Gobernu Batzarraren onarpenerako proposamena aurkezti dute.

Egitarauak Inauterietan urterik urte errotzen joan diren ekimen guztien bilduma ekartzen du, eta Udalak bere jarduerarako ezarriak dauzkan irizpide transbertsalak betetzen ditu, berdintasunaren aldekoa eta sostengarria izatea, besteak beste.

Honekin batera doaz egitarauaren eta aurrekontuaren proposamen xehatuak. Aurrekontuari dagokionez, 207.527,49 euroko gastua proposatzen da.

Kopuru hau kontzeptu hauen baturatik ateratzen da :

INAUTERIAK 2019	
KARROZA ETA KONPATSENTAKO APORTAZIOA	11.817,00 €
TXARANGEN KONTRATAZIOA	73.067,00 €
EMANALDI ETAIKUSKIZUNEN KONTRATAZIOA	32.983,80 €
ZEZEN-IKUSKIZUNEN KONTRATAZIOA	35.930,63 €
DANBORRADAK	14.686,00 €
ARGITALPENAK: PROGRAMA ETA BESTELAKO KOMUNIKAZIO LANAK	13.672,10 €
GASTU OROKORRAK: SONORIZAZIOAK, MUNTIAK, KOMON PUBLIKOEN ALKILERRA, LAGUNTZAILEAK...	25.371,00 €
GUZTIRA	207.527,49 €



TOLOSAKO
UDALA

Hori horrela, Kultura, Festak eta Gaztedia Departamentuak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Inauterietako behin betiko egitaraua eta gauzatu ahal izateko beharrezkoa den **207.527,49 €** euroko aurrekontua.

BIGARREN.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Kultura, Festak eta Gaztedia Departamentuari.

5. 84/2018, 2/2019 ETA 3/2019 FAKTURA-ZERRENDAK.

Kontuhartzaitzak **84/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa **71.884,37 €** da.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-**84/2018** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Kontuhartzaitzak **2/2019** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa **2.379,27 €** da.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO
UDALA

ERABAKI DU

LEHENA.- 2/2019 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Kontuhartzaitzak **3/2019** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa **39.094,27 €** da.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 3/2019 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA